

ADIN TXIKIKO ATZERRITAR LEGE-HAUSLEEI DAGOKIENEZ

29. Babes-arduradunek eta gazte-justiziak arazoa elkarrekin aztertzea

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritar gehienek ez dute justiziarekin arazorik eta ez dira inongo neurri judizialen xede. Hori gogoan izan behar da, haiei buruzko irudi publikoa, batzuetan, distortsionatua izaten baita; hala ere, zenbaitek badituzte arazo horiek –atzerritarrek ez diren beste nerabe edo gazte askok bezala–, normalean lapurreten edo eraso bidez egindakoak, eta azken urteetan, barneratze-zentroetan haien kopurua edo proportzioa handituz joan da.

Datu hori kezkatzeko eta aztertzeko moduko elementu gisa hartu behar da. Baina, gainera, 4. gomendioan azaldu dugun moduan, babes sistemen arduradunen (foru aldundiak) eta gazte-justizia sistemaren (Eusko Jaurlaritza) arteko lankidetzak eskatzen du.

Arartekoaren ustez, elkarrekin egin beharreko azterketak bateratu egin beharko lituzke erreforman dauden adin txikiko atzerritarren hazkundearen arrazoiak eta bi sistemen arteko loturan orain arte antzemandako arazoak; gainera, aurreko txostenetan azaldu diren efektu kaltegarriak ekidin beharko lituzke, esaterako, ustez aukera eta itxaropen handiagoak eman ditzakeen erreforma-zentro batean sartzeko arauak urratzeko tentazioa, edo neurria bete ondoren erreforman jarraitzen saiatzea, hori guztia adin txikikoaren ezaugarriei egokitutako “irteera” bat ez izateagatik.

30. Esku-hartzeen jarraipena eta koherentzia bermatzea

Aurreko gomendioan planteatutako arrazoiak eta arazoak azterketaz gain, bi sistemetako (babesekoa eta erreformakoa) arduradunen, zerbitzuen eta zentroen arteko lankidetzak beharrezkoa da, adin txikiko bakoitzarekin gauzatzen diren esku-hartzeen jarraipena eta koherentzia bermatzeko.

Ikuspuntu horretatik, badirudi beharrezkoa dela informazio-elkartrukea eta prozesu judizialen azkartasuna hobetzea kasu bakoitzean; erreferentziazko pertsona edo pertsonak (tutore edo tutoreak) nor diren argitzea; “irteera” edo emantzipazioa elkarrekin lantzea; aurrerapen nahikoarekin, beti erabiliko diren tokiak edo baliabideak zehaztea (adibidez, aste bukaeretakoa irteeretakoa edo, barneraketa-neurria bukatuta, adin txikikoa babes sistemara itzultzen denerako); erabilgarri dauden zentroetatik edo baliabideetatik, kasu bakoitzaren beharrian eta ibilbiderako egokiena zein den zehazteko garaian irizpideak eta iritziak elkartrukatzeara...

BABESIK GABEKO ADIN TXIKIKO ATZERRITARREI DAGOKIENEZ

31. Neska adin txikikoak erabiltzen dituzten prostituzio-sareen polizia-ikerketa

Txosten honetan, bere aukerak eta mugak kontuan hartuta, harreran hartu diren eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera aztertu da. Harreran hartu ez diren